



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko ekainaren 14a

72. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 10-23/CCO-00013. Nafarroako Parlamentuaren 2022ko ekitaldiko urteko kontuei buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).
- 18/23 Ebazpena, ekainaren 8koa, Nafarroako Arartekorena, zeinaren bidez María Antonia Echeverría Beloqui andrea Nafarroako Parlamentuko funtzionario izendatzen baita, Nafarroako Arartekoaren bulegoan destinoa duena, administrari lanpostua betetzeko (C maila) (24. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**10-23/CCO-00013. Nafarroako Parlamentuaren 2022ko ekitaldiko urteko kontuei buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin.**

Nafarroako Parlamentuko Batzorde Iraunkorrek, 2023ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Parlamentuaren 2022ko ekitaldiko urteko kontuei buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

**1.** Adieraztea Nafarroako Parlamentuaren 2022ko ekitaldiko urteko kontuei buruzko fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**AURKIBIDEA**

AURKIBIDEA .....	3
I. SARRERA .....	4
II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA.....	4
III. IRITZIA.....	5
III.1. Auditoria finantzarioko iritzia .....	5
III.2. Legeria betetzeari buruzko iritzia .....	5
IV. IRITZIAREN OINARRIA.....	5
V. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIAK.....	5
VI. NAFARROAKO PARLAMENTUAREN ERANTZUKIZUNA.....	6
VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	6
VIII. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA .....	7
1. GEHIGARRIA. NAFARROAKO PARLAMENTUAREN 2022KO URTEKO KONTUEN LABURPENA .....	8
2. GEHIGARRIA. NAFARROAKO PARLAMENTUA .....	14
3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA.....	15
4. GEHIGARRIA. OHARRAK ETA FISKALIZAZIOAREN AURKIKUNTZA GEHIGARRIAK .....	16
ERANSKINA. NAFARROAKO PARLAMENTUAREN ORGANIGRAMA.....	23

## I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganberak, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2023ko martxoaren 20an hartutako erabakia betez, ganbera bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin eta 2023rako jarduera-programarekin bat, Nafarroako Parlamentuaren –aurrerantzean, Parlamentua– 2022ko ekitaldiari dagokion urteko kontuen aurreproiektua fiskalizatu du.

Azterketa lana 2023ko apirilean egin du auditoriako bi teknikarik eta auditore batek osatutako lantalde batek. Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzara ere izan dute.

Jarduketara honen emaitzak Nafarroako Parlamentuko lehendakariari azaldu zitzaizkion, kasu bada egokitzat jotako alegazioak aurkezteko, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Ezarritako epea igarota, ez da alegaziorik aurkeztu.

Parlamentuko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntza dela eta.

Kanpo kontrolerako organoen auditoretzari buruzko araudiaren azken aldaketan ondorioz, txosten honek eta 2021eko ekitaldiari buruz eman genuenak egitura desberdina dute zenbait alderditan.

Txosten honetako datu guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Eman dako datuek eta ehunekoek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez biribildutako datuen batura.

## II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Finantza- eta legezkotasun-ikuskapen bat egin da Nafarroako Parlamentuaren 2022ko ekitaldiari dagokion urteko kontuen aurreproiektuari buruz, honako hauei buruzko iritzia emateko:

- Ea 2022ko ekitaldiko urteko kontuek, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten duten Parlamentuaren 2022ko abenduaren 31ko ondareari eta finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoari dagokienez ere, betiere aplikatzeko den arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuen inguruko printzipio eta irizpideei jarraituz.

- Ea 2022ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozen, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Nafarroako Parlamentuaren 2022ko urte-kontuen fiskalizazioaren norainokoa. Honako hauek dira kontabilitateko egoera-orriak:

- Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria.
- Egoeraren balantzea.
- Emaitza ekonomiko eta ondarekoaren kontua.
- Ondare garbian izandako aldaketan egoera-orria.
- Eskudiru-fluxuen egoera-orria.
- Oroitidazkia.

Parlamentuaren urteko kontuak Nafarroako Parlamentuaren Kontabilitate Planari eta haren erregelamendu ekonomiko finantzarioari jarraituz egiten dira. Kontabilitate Plana Kontabilitate Publiko Plan Orokorrari egokituta dago Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2012ko abenduaren 17an hartutako Erabakiaren bidez.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2022ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruzko beharrezko egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

### **III. IRITZIA**

Nafarroako Kontuen Ganberak, ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak erabiliz, Parlamentuaren urteko kontu orokorren aurreproiektua fiskalizatu du. Honako hauek osatuta daude kontu horiek: 2022ko abenduaren 31ko balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoaren kontua, ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria, aurrekontuko likidazioaren egoera-orria eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion memoria.

Orobat fiskalizatu du Parlamentuak 2022ko ekitaldian legeria bete ote duen.

#### **III.1. AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZIA**

Gure iritziz, 2022ko ekitaldiko urteko kontuen aurreproiektuak, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten du Parlamentuaren 2022ko abenduaren 31ko ondareari eta finantza-egoerari dagokienez. Halaber, haren emaitza ekonomiko eta aurrekontukoak islatzen ditu, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkionak, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuetako printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

#### **III.2. LEGERIA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

Gure iritziz, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Parlamentuaren 2022ko ekitaldiko jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta kontu orokorretan jasotako informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

### **IV. IRITZIAREN OINARRIA**

Kanpo-kontrolako erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera egin dugu fiskalizazioa, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 200 arauan eta legeria betetzearen fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 400 arauan ezarritakoaren arabera; halaber, kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio-gida praktikoak (GPF-OCEX) erabili ditugu. Arau horien indarrez ditugun erantzukizunak aurrerago deskribatzen dira, gure txosteneko "Kontuen Ganberaren erantzukizunak" atalean (urteko kontuei eta legeria betetzeari buruzko fiskalizazioarekin lotutako erantzukizunak).

Urteko kontuei eta legeria betetzeari buruzko fiskalizazioan aplikatu behar ditugun eskakizun etikoekin eta independentzia babestearen arlokoekin bat, entitatearekiko independenteak gara, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen du legez-kotasuna betetzeari buruzko gure finantza-iritziari eusteko.

### **V. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIAK**

Auditoretzako funtsezko auziak dira, gure iritzi profesionalaren arabera, esanahi handiena izan dutenak 2022ko urteko kontuak direla-eta egin dugun fiskalizazioan. Auzi horiek urteko kontuen osotasunari buruzko auditoretzaren testuinguruan eta kontu orokorrei buruzko iritzia taxutzerakoan jorratu ditugu, eta ez dugu bereiz azalduko horien gaineko iritzirik.

Erabaki dugu gure fiskalizazioan ez dugula jakinarazi beharreko funtsezko konturik .

## VI. NAFARROAKO PARLAMENTUAREN ERANTZUKIZUNA

Parlamentuko Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzua urteko kontuen aurreproiektua egiteaz arduratzen da, eta legelari nagusiari aurkeztuko dio, azken horrek Parlamentuko Mahaiari helarazi eta Eledunen Batzarrak onespena eman diezaion. Aurreproiektu horrek irudi zehatza eman beharko du Parlamentuaren aurrekontu-likidazioari, ondareari, emaitzei eta finantza-egoerari buruz, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoko eta barne kontrolako arau-esparruari jarraituz. Bermatu beharko du, halaber, aipatu kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin.

Txosten honek aztergai duen urteko kontuen aurreproiektua 2023ko martxoaren 16an egin zuen Nafarroako Parlamentuko Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako zerbitzuburuak, eta 2023ko martxoaren 20an eskuratu zitzaigun.

## VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Helburutzat dugu arrazoizko ziurtasun bat lortzea, urteko kontuetan, oro har, iruzur edo errore onoriozko akats materialik ez egoteaz, eta kontu horietan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa aplikatu behar den araudiarekin bat etortzeaz, arauzkotasunaren fiskalizaziorako gure txostena eman ahal izateko, gure iritzia jasotzen duena.

Arrazoizko ziurtasun hori ziurtasun maila handia da, baina ez du bermatzen kanpo kontrolako organoen araudiari jarraikiz egindako fiskalizazio batek beti atzemanen dituenik akats materialak edo ez-betetze adierazgarriak. Akatsak iruzurraren edo errore onoriozko akats materialak ez betetzearen ondorio, eta akats materialtzat jotzen dira kontuen ganbera honen irizpideak aplikatuta, baldin eta zentzuz aurreikusi ahal bada txostenen erabiltzaileen erabaki ekonomikoetan eraginen dutela.

Fiskalizazioaren atal gisa, eta kanpo kontrolako organoen araudiarekin bat etorritik, gure iritzia profesionala aplikatzen dugu eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan. Gainera:

- Iruzur edo errore onoriozko akats materialak izateko arriskuak identifikatu eta baloratzen ditugu, auditoretzako prozedurak diseinatu eta aplikatzen ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta auditoretzako ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia oinarria emateko. Iruzurraren ondoriozko akats material edo ez-betetze bat ez atzemateko arriskua handiagoa da errore onoriozko akats materialaren kasuan baino; izan ere, iruzurra dagoenean tartean izan daitezke kolusioa, faltsutzea, berariazko omisioak, berariazko adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.

- Fiskalizaziorako beharrezkoa den ezagutza lortzen dugu barne-kontrolari buruz, inguruabarraren arabera auditoretza-prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez.

- Ebaluatzen dugu ea kontabilitate-politika egokiak aplikatu diren eta arrazoizkoak ote diren kontabilitateko estimazioak eta kudeaketa organoak horien arabera emandako informazioa.

- Urteko kontuen aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, emandako informazioa barne, eta ea urteko kontuek zehatz irudikatzen dituzten transakzioak eta azpian dauden egitateak.

Entitateko gobernu organoarekin harremanetan aritzen gara gai hauen inguruan, besteak beste: planifikatutako auditoretza-proben norainokoa eta haiek egiteko unea, fiskalizazioan aurkitutako gorabehera adierazgarriak, eta fiskalizazioan zehar identifikatzen ahal ditugun barne-kontrolako akats adierazgarriak.

### VIII. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Aurreko txostenetan jasotako gomendio garrantzitsu hauek betetzeko neurriak hartu dira fiskalizatutako ekitaldian:

- *Neurri egokiak hartzea aurreikusten diren lanpostu hutsak behin betiko betetzeko, 20/2021 Legean ezartzen den bezala. Helburua da aldi baterako lanaren gehieneko tasa egiturazko lanpostuen ehuneko zortzitik behera ekartzea, aplikatu behar den esparru berrian ezarritako baldintzak eta epeak betez betiere.*<sup>1</sup>

- *Kontratazioa planifikatzea epeak prestazio motaren arabera egokitzeko moduan, horrela behar beste denbora lehenago izapidetu ahal izateko lizitazioak, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 71.1 artikuluan ezarritako prozeduren arabera. Helburua da lizitazioen arteko lehia nahikoa bermatzea, zerbitzuen adjudikazioan kalitatearen eta prezioaren arteko erlaziorik onena bermatzeko mekanismo gisa.*<sup>2</sup>

Aurreko ekitaldietako txostenetan jasotako gomendio garrantzitsu hauek lehengoan diraute:

- *Nafarroako Parlamentuko plantilla organikoan dauden lanpostu hutsak deialdi publikoaren bidez betetzeko hasitako egintzekin jarraitzea, aplikatu beharreko araudiari jarraikiz lanpostu horiek behin betiko betetzeko.*

- *Adjudikazio-hartzaile izateko proposatua izanen den pertsonak kontrataziorako baldintzak egiazki betetzen dituela frogatzeko aurkeztu beharko dituen agiri guztiak aipatzea administrazio klausula partikularren agirietan.*

- *Gomendatzen dugu, talde parlamentarioei ematen zaizkien dirulaguntzen izaera finalista dela-eta, azter dadila alderdi politikoekiko lankidetzaren harremanak hitzarmenen bidez formalizatzeko aukera. Hitzarmen horietan jasoko lirateke alderdi politikoek taldeei ematen ahal dizkieten zerbitzuak, beren balorazio ekonomikoarekin, bai eta zerbitzu horien kostua konpentsatzeko taldeek urtero egin behar duten ekarpenaren zenbatekoa ere.*

Gainera, finantza-fiskalizazioaren eta legeria betetzearen fiskalizazioaren emaitza gisa, beste gomendio batzuk jaso dira txosten honen 4. gehigarrian (beste ohar eta aurkikuntza batzuei buruzkoan).

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Begoña Herrera Ibasik proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

*(Ignacio Cabeza del Salvador Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak alboan ageri den egunean elektronikoki sinatua)*

<sup>1</sup>Ikus xehetasunak 4.2.2. eranskinean.

<sup>2</sup>Ikus xehetasunak 4.2.5. eranskinean.

**1. GEHIGARRIA. NAFARROAKO PARLAMENTUAREN 2022KO URTEKO KONTUEN LABURPENA****1.1 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA****Gastu-aurrekontuaren betetzea**

Gastuak	Hasierako kredituak	Aldaketa	Behin betiko kredituak	ABG	Betetakoa %	Ordainketak
1. Langileria gastuak	8.296.912		8.296.912	7.573.682	91	7.573.682
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	2.454.425	78.454	2.532.879	1.590.552	63	1.447.025
4. Transferentzia arruntak	3.239.433	41.495	3.280.928	3.099.440	94	3.074.095
5. Kontaketa orokorra eta bestelako ustekabeak	147.297	-61.595	85.702	0	0	0
6. Inbertsio errealak	739.010	325.907	1.064.917	261.937	25	89.609
8. Finantza-aktiboak	57.795		57.795	16.316	28	16.316
9. Finantza-pasiboak	3.005	595	3.600	3.600	100	3.600
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>14.937.877</b>	<b>384.857</b>	<b>15.322.734</b>	<b>12.545.528</b>	<b>82</b>	<b>12.204.327</b>

**Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea**

Diru-sarrerak	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	AEG	Betetakoa %	Kobrantsak
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.860		2.860	88.028	3.078	88.028
4. Transferentzia arruntak	14.135.197		14.135.197	14.135.197	100	14.135.197
5. Ondare-sarrerak	10		10	0	0	0
7. Kapital-transferentziak	776.205		776.205	776.205	100	776.205
8. Finantza-aktiboak	23.010	384.857	407.867	16.468	4	16.468
9. Finantza-pasiboak	595		595	3.002	505	3.002
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>14.937.877</b>	<b>384.857</b>	<b>15.322.734</b>	<b>15.018.901</b>	<b>98</b>	<b>15.018.900</b>



## 1.2 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA

Kontzeptuak	2021			2022		
	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak	Aurrekontu-emaizta	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak	Aurrekontu-emaizta
a. Eragiketa arruntak (1. kapitulutik 5. kapitulura)	13.823.695	11.700.128	2.123.567	14.223.225	12.263.674	1.959.551
b. Kapital-eragiketak (6. eta 7. kapituluak)	816.205	260.002	556.203	776.205	261.937	514.268
1. Eragiketa ez-finantzarioak guztira (a+b)	14.639.900	11.960.129	2.679.770	14.999.430	12.525.611	2.473.819
c. Finantza-aktiboak (8. kapitulua)	28.820	21.153	7.666	16.468	16.317	151
d. Finantza-pasiboak (9. kapitulua)	1.583	0	1.583	3.002	3.600	-598
2. Finantza-eragiketak, guztira (c+d)	30.403	21.153	9.250	19.470	19.917	-446
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaizta (1+2)	14.670.303	11.981.283	2.689.020	15.018.900	12.545.528	2.473.373
Doikuntzak						
3. Gehitutako kredituak finantzatzeko funtsak			368.246		384.857	
4. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze negatiboak			-		-	
5. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze positiboak			384.857		267.262	
II. Doikuntzak, guztira (3+4-5)			-16.611		117.596	
Aurrekontu-emaizta doitua (I+II)			2.672.409			2.590.968
Foru Ogasunari Itzultzeko Zenbatekoa			2.672.409			2.590.968

## 1.3 2022KO ABENDUAREN 31KO DIRUZAINZTA-GERAKINA

Osagaiak	2021	2022
1. Funts likidoak	3.380.160	3.763.663
2.(+) Kobratzeko dauden eskubideak	0	315
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	0	315
3.(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	2.995.303	3.496.716
(+) Ekitaldiko aurrekontutik	204.371	341.200
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	2.790.932*	3.155.516*
I. Diruzaintza-gerakina, guztira (1+2-3)	384.857	267.262
II. Finantzaketa atxikiaren gaindikina	384.857	267.262
III. Saldo kobragaitzak	0	0
IV. Diruzaintza-gerakin atxikigabea (I-II-III)	0	0

\* Foru Ogasunari itzuli beharreko funtsak jasotzen ditu.

## 1.4. 2022KO ABENDUAREN 31KO BALANTZEA

(Emitza aplikatu ondoren)

	2021	2022
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>18.961.229</b>	<b>18.736.084</b>
<b>A) Aktibo ez-korrontea</b>	<b>15.571.551</b>	<b>14.955.840</b>
<b>I. Ibilgetu ukiezin garbia</b>	<b>103.753</b>	<b>138.977</b>
3. Aplikazio informatikoak	102.026	137.486
2060-2806. Aplikazio informatikoak	102.026	137.486
5. Bestelako ibilgetu ukiezina	1.727	1.491
2090-2809. Bestelako ibilgetu immateriala	1.727	1.491
<b>II. Ibilgetu material garbia</b>	<b>15.447.748</b>	<b>14.803.713</b>
2. Eraikuntzak	12.369.221	11.816.176
2110-2811. Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	12.369.221	11.816.176
5. Bestelako ibilgetu materiala	3.068.726	2.987.537
2140-2814. Makineria eta tresnak	824.870	789.174
2150-2815. Garraio-osagaiak	0	0
2160-2816. Altzariak eta tresneria	17.054	14.197
2170-2817. Informazio-prozesuetako ekipamenduak	382.755	274.024
2190-2819. Bestelako ibilgetu materiala	1.844.047	1.910.142
6. Aribideko ibilgetua	9.801	0
2340-Aribideko ibilgetua	9.801	0
<b>V. Epe luzeko finantza-inbertsioak</b>	<b>20.051</b>	<b>13.150</b>
4. Bestelako finantza-inbertsioak	20.051	13.150
2540. Epe luzeko maileguak	20.051	13.150
<b>B) Aktibo korrontea</b>	<b>3.389.677</b>	<b>3.780.244</b>
<b>III. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk</b>	<b>0</b>	<b>315</b>
3. Administrazio publikoak	0	315
4709 – Ogasun Publikoa zordun, kontzeptu fiskalak direla eta	0	0
4490 – Beste zordun batzuk	0	315
<b>V. Epe laburreko finantza-inbertsioak</b>	<b>9.517</b>	<b>16.266</b>
4. Bestelako finantza-inbertsioak	9.517	16.266
5440-534. Epe laburreko maileguak, aurrerakinak	9.517	16.266
<b>VII. Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk</b>	<b>3.380.160</b>	<b>3.763.663</b>
1. Kutxa	3.778	1.665
5700 – Kutxako eskudirua	3.778	1.665
2. Bankuak eta kreditu-erakundeak	3.376.382	3.761.998
5711 – Rural Kutxako kontu korrontea	3.376.382	3.761.998
<b>ORDENA-KONTUAK</b>	<b>20.353</b>	<b>16.554</b>
Abalak eta bermeak	20.353	16.554
0520 – Jasotako abalak	20.353	16.554

	2021	2022
<b>PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>18.961.229</b>	<b>18.736.084</b>
<b>A) Ondare garbia</b>	<b>15.947.811</b>	<b>15.221.851</b>
<b>I. Jarritako ondarea</b>	<b>13.696.238</b>	<b>13.127.974</b>
1000. Ondarea	6.991.953	6.423.689
1001-1070. Atxikipen gisa jasotako ondarea	6.704.285	6.704.285
<b>II. Sortutako ondarea</b>	<b>2.251.573</b>	<b>2.093.877</b>
2.Ekitaldiko emaitzak	384.857	267.262
1291. Atxikitako funtsak, aplikatzeko daudenak	384.857	267.262
<b>IV. Emaitzei aplikatzeko zain dauden beste ondare-gehikuntza batzuk</b>	<b>1.866.716</b>	<b>1.826.615</b>
1300.Dirulaguntzak	1.866.716	1.826.615
<b>B) Pasibo ez-korrontea</b>	<b>12.115</b>	<b>12.115</b>
1800. Epe luzeko fidantzak	12.115	12.115
<b>C) Pasibo korrontea</b>	<b>3.001.303</b>	<b>3.502.118</b>
<b>I. Epe laburreko zuzkidurak. Epe laburreko zorrak</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>II. Epe laburreko zorrak</b>	<b>6.000</b>	<b>5.402</b>
4.Bestelako zorrak	6.000	5.402
5600.Jasotako epe laburreko fidantzak eta gordailuak	6.000	5.402
<b>IV. Hartzekodunak eta ordainkizun dauden beste kontu batzuk</b>	<b>2.995.303</b>	<b>3.496.716</b>
1.Kudeaketa-eragiketengatiko hartzekodunak	204.371	341.200
4000. Aitortutako betebeharren hartzekodunak, aurtengo aurrekontuan	204.371	341.200
4199 – Beste hartzekodun batzuk	0	0
3.Administrazio publikoak	2.790.932	3.155.516
4750. Ogasun Publikoa hartzekodun, PFEZa dela eta	0	430.335
4751. Ogasun Publikoa Eskubide pasiboengatik hartzekodun	0	4.422
4752. Ogasun Publikoa Erabilera bereziaren hartzekodun	0	0
4760. Ogasuna hartzekodun, kredituen itzulketa dela eta	2.672.409	2.591.076
4770. Gizarte Segurantzza hartzekodun	118.524	129.683
<b>ORDENA-KONTUAK</b>	<b>20.353</b>	<b>16.554</b>
Abalak eta bermeak	20.353	16.554
0570 Abal-emaileak	20.353	16.554

## 1.5 2022KO EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA

	2021	2022
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	14.601.293	14.951.503
a) Ekitaldikoak	14.601.293	14.951.503
a.2) Transferentziak	14.601.293	14.951.503
7500.Nafarroako Gobernuaren kapital-transferentziak	854.073	816.306
7510.Nafarroako Gobernuaren transferentzia arruntak	13.747.220	14.135.197
6. Kudeaketa arrunteko beste diru-sarrerak batzuk	76.475	88.028
7730.Itzulketak	75.044	88.015
7770.Beste diru-sarrera batzuk	1.390	0
7000. Argitalpenak saltzea	40	14
<b>A) Kudeaketa arrunteko diru-sarrerak, guztira</b>	<b>14.677.767</b>	
8. Langileria gastuak	7.271.732	7.618.536
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	5.937.686	6.232.192
6400.Soldatak eta lansariak	2.712.133	2.804.792
6401.Behin-behineko langileen soldatak	572.610	583.644
6402.Parlamentarien dietak eta garraioak	8.282	11.553
6409.Parlamentarien beste gizarte-gastu batzuk	16.225	16.132
6410.Funtzionarioen soldatak	2.587.224	2.740.306
6411.Langile kontratatuen soldatak	54.498	73.148
6412.Bestelako dietak eta garraioak	2.938	18.748
b) Gizarte-zamak	1.334.046	1.386.345
6420.Enplegu-emailearen kargura dagoen Gizarte Segurantzza	1.266.214	1.330.188
6449.Langileen beste gizarte-gastu batzuk	51.608	40.025
9. Egindako transferentziak eta emandako dirulaguntzak	3.008.824	3.099.440
6500.Transferentzia arruntak	2.847.788	2.836.596
6510-Dirulaguntzak	161.036	262.844
11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	1.419.571	1.545.697
a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	1.419.571	1.545.697
c) Beste batzuk	0	
12. Ibilgetuaren amortizazioa	874.510	870.748
<b>B) Kudeaketa arrunteko gastuak, guztira</b>	<b>12.574.637</b>	<b>13.134.422</b>
<b>I. Kudeaketa arruntaren emaitza (aurrezkia edo desaurrezkia) (A-B)</b>	<b>2.103.130</b>	<b>1.905.109</b>
13. Beste diru-sarrera batzuk	0	
<b>II. Eragiketa ez-finantzarioen emaitza</b>	<b>2.103.130</b>	<b>1.905.109</b>
15. Diru-sarrera finantzarioak	0	
<b>III. Finantza-eragiketen emaitzak</b>	<b>0</b>	
<b>IV. Ekitaldiko emaitza garbia (aurrezkia edo desaurrezkia) (II+III)</b>	<b>2.103.130</b>	<b>1.905.109</b>

## 1.6 2022KO ONDARE GARBIA IZANDAKO ALDAKETEN EGOERA-ORRIA

	Jarritako ondarea	Sortutako ondarea	Beste ondare-gehikuntza batzuk	Guztira
A. Amaierako ondare garbia, 2021	13.696.238	384.857	1.866.716	15.947.811
B. Kontabilitate-irizpideetan izandako aldaketengatik eta akatsak zuzentzeko egindako doikuntzak	0	0		0
C. 2022ko hasierako ondare garbi doituak	13.696.238	384.857	1.866.716	15.947.811
D. 2022ko ondare garbiak izandako aldeak	-568.264	-117.596	-40.101	-725.960
Ekitaldian aitortutako diru-sarrerak eta gastuak	0	267.262	-40.101	227.161
Ondare garbian izandako beste aldaketa batzuk	-568.264	-384.857		-953.121
<b>Amaierako ondare garbia, 2022</b>	<b>13.127.974</b>	<b>267.262</b>	<b>1.826.615</b>	<b>15.221.851</b>

## 1.7 2022KO ESKUDIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA

	2021	2022
I. KUDEAKETA-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK		
A) Kobrantzak:	14.379.898	15.172.250
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	14.303.423	14.649.465
3. Salmenta garbiak eta zerbitzu-emateak	40	14
6. Beste kobrantza batzuk	76.434	522.771
B) Ordainketak:	14.144.506	14.960.628
7. Langileria gastuak	7.150.929	7.485.466
8. Egindako transferentziak eta emandako dirulaguntzak	2.981.856	3.074.095
10. Bestelako kudeaketa-gastuak	1.247.689	1.405.557
13. Beste ordainketa batzuk	2.764.031	2.995.510
Kudeaketa-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+A-B)	235.392	211.621
II. INBERTSIO-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK		
C) Kobrantzak:	30.403	19.470
3. Inbertsio-jardueretako beste kobrantza batzuk	30.403	19.470
D) Ordainketak:	277.914	109.526
4. Inbertsio errealean erosketa	256.761	89.609
6. Inbertsio-jardueretako beste ordainketa batzuk	21.153	19.917
Inbertsio-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+C-D)	-247.511	-90.055
III. FINANTZAKETA-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK		
E) Ondare-gehikuntzak	260.002	261.937
1300. Finantza-ibilgetua finantzatzeko dirulaguntzak	260.002	261.937
G) Finantza-pasiboen kobrantza	0	0
Finantzaketa-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak	260.002	261.937
VI ESKUDIRUAREN ETA HAREN BALIOKIDE DIREN AKTIBO LIKIDOEN IGOERA/JAITSIERA GARBIA EKITALDIAN (I+II+III)	247.883	384.503
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren hasieran	3.132.277	3.380.160
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren bukaeran	3.380.160	3.764.663

## 2. GEHIGARRIA. NAFARROAKO PARLAMENTUA

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 11. artikulua araber, Parlamentuak Nafarroako herria ordezkatzeko, legegintzarako ahalmena erabiltzen, Nafarroako aurrekontuak eta kontuak onesten, Foru Diputazioaren jardura bultzatzen eta kontrolatzen, eta ordenamendu juridikoak esleitzen dizkion gainerako eginkizunak betetzen. 50 parlamentarik osatzen dute Parlamentua.

2019ko ekainaren 19an, X. legegintzaldia eratzeko bilkura egin zen sei talde politikorekin. Talde horiek 2019ko maiatzaren 26an egindako hauteskundeen emaitza dira, eta lortutako parlamentari-kopuruari dagokionez, taula honetan islatzen da egoera:

Alderdiak/koalizioak/elkarteak	Parlamentari kopurua
Navarra Suma talde parlamentarioa	20
Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioa	11
Geroa Bai talde parlamentarioa	9
EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioa	7
Podemos-Ahal Dugu Nafarroa foru parlamentarien elkar- tea	2
Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoa	1
<b>Parlamentariak, guztira</b>	<b>50</b>

Nafarroako Parlamentuaren aurrekontua Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartuta dago, eta haren kontuak Nafarroako kontu orokorren parte bat dira.

2022ko ekitaldia ixtean, honako hauek ziren Nafarroako Parlamentuaren funtsezko datu ekonomikoak eta langile-arlokoak:

	Aitortutako es- kubideak	Aitortutako be- tebeharrak	Langileak, 2022-12-31n
Nafarroako Parlamentua	15.018.901	12.545.528	74

Gobernu-organoak Osoko Bilkura, Mahaia, Eledunen Batzarra eta Batzorde Iraunkorra dira. Txosten honen eranskinean Nafarroako Parlamentuaren organigrama ageri da.

### 3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Nafarroako Parlamentuari 2022ko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua honako hau da:

- 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa.
- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, enplegu publikoan aldi baterako lana murrizteko presako neurriei buruzkoa.
- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- 2/2022 Foru Lege-dekretua, maiatzaren 23koa, Nafarroako administrazio publikoetan 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoa.
- Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bategina, Mahaiak 2011ko irailaren 12an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.
- Nafarroako Parlamentuaren erregelamendu ekonomiko-finantzarioa, Parlamentuko Mahaiak 2020ko urtarrilaren 27an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.
- Nafarroako Parlamentuaren Kontabilitate Plana, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2012ko abenduaren 17an hartutako Erabakiaren bidez Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrari egokitua.
- Nafarroako Parlamentuko Administrazioaren Antolaketari buruzko Erregelamendua, Parlamentuko Mahaiak 2021eko uztailaren 26an aldatua.
- Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua, Parlamentuko Erregelamendu Batzordeak 1991ko martxoaren 20an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.
- Parlamentarien ordainsariei buruzko araua, Parlamentuko Batzorde Iraunkorraren Mahaiak hartutako Erabakiaren bidez onetsia, eta haren geroko aldaketak.
- Behin-behineko langileen ordainsariei buruzko araua, Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2012ko abenduaren 17ko Erabakiaz onetsia, eta haren urteroko eguneratzeak.
- Talde parlamentarioentzako ordainsariei buruzko araua, Parlamentuko Mahaiak 2019ko irailaren 2an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.

#### 4. GEHIGARRIA. OHARRAK ETA FISKALIZAZIOAREN AURKIKUNTZA GEHIGARRIAK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, Ganbera honen ustez fiskalizazio-txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitezkeenak.

Orobat gehitu ditugu Ganbera honen ustez Parlamentuaren kudeaketa ekonomiko-administrati-boa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

##### 4.1 PARLAMENTUAREN AURREKONTUA

Parlamentuaren 2022rako hasierako aurrekontuak 14,94 milioi euroko diru-sarrereren eta gastuen aurreikuspen hasierakoak jasotzen zituen.

Gastuetan eta diru-sarreretan goranzko aurrekontu-aldaketa batzuk egin ondoren, 380.000 eu-rokoak —hasierako kredituen ehuneko hiru egiten dute—, behin betiko gastu eta diru-sarrerek 15,32 milioi euro egiten dute.

##### Aurrekontu-likidazioa

2022an, gastuek 12,5 milioi euro egin zuten, betetze-maila ehuneko 82koa eta ordaintze-maila ehuneko 97koa izanik. Gastu horiek 2021ekoak baino ehuneko bost handiagoak izan ziren.

Aitortutako eskubide garbiek 15 milioi euro egiten dute, eta betetze- eta kobrantza-maila ehu-neko 98 eta ehuneko 100 dira hurrenez hurren. Kasu honetan, 2021ekoekiko igoera ehuneko bikoia izan da.

Taula honetan ageri dira Parlamentuaren gastuen eta diru-sarrereren xedea eta finantzaketa, ehunekoetan:

Gastuaren izaera	Ehunekoa	Finantzatze-iturria	Ehunekoa
Langileak	60	Transferentzia arruntak	94
Transferentzia arruntak	25	Kapital-transferentziak	5
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	13	Tasak eta prezio publikoak	1
Inbertsio errealak	2		
	100		100

Ondoren, 2021eko eta 2022ko ekitaldietako aurrekontu-likidazioarekin zerikusia duten adierazle batzuen alderaketa erakusten dugu:

Adierazlea	2021	2022	2022/2020 aldea (%)
Aitortutako eskubideak, guztira	14.670.303	15.018.901	2
Aitortutako betebeharrak, guztira	11.981.283	12.545.528	5
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	13.823.695	14.223.225	3
Funtzionamendu gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	11.700.128	12.263.674	5
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	816.205	792.673	-3
Kapital-gastuak (6. kapituluak)	260.002	261.937	1
Aurrekontu-emaitza doituak	2.672.409	2.590.968	-3
Diruzaintza-gerakina	384.857	267.262	-31

Aurreko bilakaeratik, honako hau azpimarratu behar dugu:

- 2022an aitortutako eskubideak 2021ekoak baino ehuneko bi gehiago izan ziren, nagusiki transferentzia arruntan hazkundearen ondorioz.
- 2022an aitortutako betebeharrak aurreko ekitaldikoak baino ehuneko bost gehiago izan ziren, funtzionamendu-gastuen hazkundearen ondorioz.



- Aurrekontu-emaizta doitu, 2,6 milioikoa, araudi indardunaren arabera Foru Ogasunari itzuli beharreko zenbatekoa da.
- 2022ko diruzaintza-gerakina 0,27 milioikoa da, eta ehuneko 31 jaitsi da 2021ekoarekin alderatuta.

## 4.2 KUDEAKETA-ALORRAK

### 4.2.1 Alderdi orokorrak

Eledunen Batzarrak Nafarroako Parlamentuaren 2022rako aurrekontu-proiektua onetsi zuen 2021eko urrian. Nafarroako Aurrekontu Orokorrak, non Parlamentuaren aurrekontuak integratzen baitira, abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legearen bidez onetsi ziren.

### 4.2.2 Langile-gastuak

Nafarroako Parlamentuaren langile-gastuek 7,57 milioi euro egin zuten 2022an, ehuneko 91ko betetze-mailarekin. Ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 60 egiten dute.

2021eko ekitaldiarekin alderatuta, langileria-gastuek ehuneko lau egin zuten gora, jarraian xehakaturik azaltzen denez:

Kontzeptua	ABG, 2021	ABG, 2022	2022/2021 aldea (%)
Lehendakaritzaren ordainsariak	74.041	76.632	3
Parlamentarien ordainsariak	2.558.058	2.649.797	4
Parlamentari ohien ordainsariak	0	0	0
Parlamentarien dietak	80.034	78.363	-2
Lehendakaritzako Kabineteko behin-behineko langileen ordainsariak	97.145	100.545	3
Behin-behineko langileen ordainsariak. Beste kargudun batzuk	475.465	483.099	2
Funtzionarioen ordainsariak	1.617.349	1.633.630	1
Aldi baterako lan-kontratadunen ordainsariak	1.024.372	1.179.825	15
Gizarte Segurantzak	737.758	792.800	7
Parlamentarien Gizarte Segurantzak	528.455	537.388	2
Beste hobekuntza sozial batzuk	15.861	1.917	-88
Parlamentarien aseguruaren prima	16.225	16.133	-1
Zerbitzuetako langileen aseguruaren prima	23.089	23.553	2
<b>Guztira</b>	<b>7.247.854</b>	<b>7.573.682</b>	<b>4</b>

Aldaketa esanguratsuenak berrikusi eta aztertu ditugu, eta egiaztatu dugu behar bezala oinarrituta eta dokumentatuta daudela.

### Plantilla organikoa

Nafarroako Parlamentuaren 2022rako plantilla organikoa eta 2021eko abenduaren 31ko langile-zerrenda ez ziren onetsi; beraz, indarrean jarraitzen du 2021erako onetsitakoak. 2023. urterako plantilla organikoa eta 2022ko abenduaren 31ko langile-zerrenda 2023ko apirilaren 5eko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Honako hauek dira lanpostuak, onetsitako azken plantilla organikoaren arabera:

Sailkapena	2022/12/31
Funtzionarioak	60
Behin-behineko langileak	3
Talde parlamentarioetako laguntzaileak	13
<b>Guztira</b>	<b>76</b>

Funtzionarioen lanpostuen 2022ko abenduaren 31ko egoera ikus daiteke taula honetan:

	2022/12/31
Plantillako lanpostuak	60
Beteta/Plaza erreserbatuta	34
Hutsik	26
<b>Lanpostu hutsak, guztizkoaren aldean (%)</b>	<b>43</b>
Bete diren lanpostu hutsak	24
<b>Aldi baterako betetako lanpostu hutsak (%)</b>	<b>92</b>

Aldi baterako langileen tasa 2022aren amaieran ehuneko 43 zen; tasa horrek aldi baterako lanaren maila handia erakusten du. 26 postu huts daude, eta horietatik 24 behin-behinekoz beteta daude.

2022ko abenduaren 31n, honako langile publiko hauek lan egiten zuten Nafarroako Parlamentuan:

Langileak	2022/12/31
Funtzionarioak	30
Administrazio-kontratadun langileak	24
<b>Guztira</b>	<b>54</b>
<b>Langile kontratatuak/langile guztiak (%)</b>	<b>44</b>

Taula horri eta beraren analisiaren ondorioei dagokienez, ez dira jaso aldi baterako ordezkapen-entzarako kontratazioak, ez behin-behineko langileak, ezta talde parlamentarioetako laguntzaileak ere.

Egiaztatu dugu araudiaren arabera direla foru parlamentarietatik lagin batek jasotako ordainsariak. 2022an ez zen karguoste-ordainsaririk ordaindu.

Parlamentuko langileen nominen lagin bat berrikusi dugu eta ondorioztatu dugu ezen, oro har, ordaindutako lansariak bat datozela plantilla organikoaren arabera betetzen dituzten lanpostuekin eta kasuan kasuko inguruabar administratibo eta familiarrekin, eta araudian ezarritakoaren arabera direla. Familia laguntza langileak aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenaren arabera ordaintzen da, ondoren egiaztapenik gabe.

Era berean, bi transkribatzaile-postu, funtzionario-araubidekoak, betetze aldera 2022an egin-dako deialdia aztertu dugu, eta izapidea zuzena izan da, merezimendu-, gaitasun- eta publikotasun-printzipioen arabera.

Aztertu dugu aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesua abenduaren 28ko 20/2021 Legean, enplegu publikoan aldi baterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoan, jasotako betekizun eta epeen arabera den. Honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

- Parlamentuko Mahaiak erabaki bat hartu zuen 2022ko maiatzaren 30ean, zeinaren bidez adierazten baitira aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuei loturik dauden plantilla organikoko lanpostuak. Guztira, sei lanpostu huts dira 20/2021 Legeak ukitutakoak; horietatik lautan merezimendu-lehiaketaren hautapen-sistema baliatuko da eta bitan, berriz, oposizio-lehiaketa. Egiaztatu dugu erabakian sartutako postuek araudian ezarritako baldintzak betetzen dituztela.

- Lanpostu horiek betetzeko deialdiak abenduaren 15eko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, legeak ezarritakoarekin bat, hark ezarritako epemuga 2022ko abenduaren 31 baitzen. Deialdiak araudiaren arabera direla egiaztatu dugu.

- 2023ko maiatzaren 12an argitaratu ziren lau postu huts betetzeko merezimendu lehiaketaren bidezko salbuespeneko deialdiari zegozkien izendapenak.

Egonkortze prozesuaren eta transkribatzaile-postuak betetzeko deialdiaren ebazpenaren ondorioz, behin-behinekotasan tasa ehuneko 30ekoa da, honako taula honetan zehazten denez:

Aldi baterako betetze-tasa	
Lanpostu hutsak 2022/12/31n	26
Egonkortze prozesuan deitutako lanpostuak	6
Transkribatzaile izateko deituriko lanpostuak	2
Lanpostu betegabeak, guztira	18
Lanpostu hutsak lanpostu guztien gainean (%)	30

Horrenbestez, beharrezkoa da enplegu publikorako deialdi berriak egiten jarraitzea, aldi baterako betetze-tasa egiturazko lanpostuen ehuneko zortzitik behera jaisteko, hori baita 20/2021 Legeak ezartzen duen helburua.

Horren haritik, 2013ko maiatzaren 5ean, Parlamentuak amaitu du hamar administrari-postu huts betetzeko barne mugikortasun horizontaleko prozedura eta aurreikusten da hurrengo hilabeteetan postu horiek behin betikoz betetzeko deialdi publikoa egiten duela.

Txosten honetako "Muntako gomendioak" izeneko atalean hori dela-eta esandakoaz gain, honako hau gomendatzen dugu:

- 1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen plantilla organikoa urtero onestea.
- Erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko ahalmenak erabiltzea, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

#### 4.2.3. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak

Parlamentuaren ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak 1,6 milioi eurokoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 13 egiten dute; haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 63koa izan zen. Kapitulu horretako gastuak 2021ekoak baino ehuneko 21 handiagoak izan ziren, gehienbat energia horniduren prezioaren igoera dela-eta.

Gastu eta zerbitzuetako gastu arruntaren kontzeptu nagusiak, eta haien eta aurreko ekitaldikoaren arteko alderaketa, honakoak dira:

Kontzeptu ekonomikoa	ABG, 2021	ABG, 2022	2022/2021 aldea (%)
Garbitze- eta txukuntze-zerbitzuak	305.796	328.064	7
Hornidurak	155.974	262.938	69
Egindako beste lan batzuk	257.980	209.999	-19
Informazio zerbitzuak	157.921	165.239	5
Ekipamendu eta programa informatikoen konponketa eta mantentzea	139.485	129.830	-7

Honako gastu-lagin hau aztertzen dugu:

Kontzeptu ekonomikoa	ABG, 2021	ABG, 2022	2022/2021 aldea (%)
Egindako beste lan batzuk	257.980	209.999	-19
Hornidurak	155.974	262.938	69
Jarduera orokorrak:	45.906	60.986	33

Egindako lanaren konklusioa da gastuak, oro har, zuzen kontabilizatuta eta justifikatuta daudela, eta araudian ezarritako epean ordaindu direla.

#### 4.2.4 Transferentzia arruntetako gastuak

Parlamentuaren transferentzia arruntetako gastuak 3,10 milioi eurokoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 25 egiten dute; haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 94koa izan zen. Kapitulu honetako gastuak 2021ekoak izan ziren, eta ehuneko 3 egin zuten gora.

Talde parlamentarioei esleitutako partida berrikusi da, 2,84 milioi eurokoa, kapituluko gastuen ehuneko 92 hartzen duena, taldeen arabera honako xehetasun hauekin:

Talde parlamentarioa	Zenbatekoa
Navarra Suma talde parlamentarioa	934.716
Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioa	599.508
Geroa Bai talde parlamentarioa	485.304
EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioa	422.160
Podemos-Ahal Dugu Nafarroa foru parlamentarien elkarte	213.240
Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoa	181.668
<b>Guztira</b>	<b>2.836.596</b>

Egiaztatu dugu talde parlamentarioei ordaindutako zenbatekoa Mahaiak 2022ko urtarrilaren 17an hartutako erabakiaren bidez onetsitako ordainsari ekonomikoei dagokiela.

Talde parlamentarioek 2022ko ekitaldiko dirulaguntzen kontabilitatea aurkezteko betebeharrari dagokionez, hauxe egiaztatu dugu:

- Talde parlamentarioek garai eta modu egokian informatzeko betebeharra bete dute.
- Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak manuzko txostena egin du.
- Batzorde Iraunkorrak, 2023ko maiatzaren 2an, aipatu araudian eskatzen diren izapideak betetzat eman eta Parlamentuaren webgunean eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea baimendu zuen.

Talde parlamentarioek alderdi politikoei egiten dizkieten ekarpenei dagokienez, Kontuen Ganberak, Parlamentuaren 2021eko kontuei buruzko txostenean, gomendatu zuen talde parlamentarioen eta alderdi politikoen arteko lankidetzaren harremanak hitzarmenen bidez formaliza daitezela.

Gomendio horri jarraikiz, Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak, Zerbitzu Juridikoaren oniritziarekin, txosten bat egin zuen, non jasotzen baitzen talde parlamentarioen ordainariei buruzko arauak aldatzeko proposamena. Taldeen urteko kontuez gainera, alderdi politikoei sinatutako lankidetzaren hitzarmenak eskatuko dira. Hitzarmen horietan jasoko dira alderdi politikoei ematen dizkieten zerbitzuak, bai eta horien balorazio ekonomikoa ere.

2023ko martxoaren 27an, Mahaiak erabaki zuen proposamen horren onespena atzeratzea heldu den legegintzaldiko Mahaia eta Eledunen Batzarra eratu arte.

Bestalde, adierazten dugu alderdi politikoen finantzaketaren fiskalizazioa Kontu Auzitegiari soilik dagokiela.

Xede hauek aurkeztu dituzte talde parlamentarioek:

Talde parlamentarioa	Zenbatekoa	Lotutako entitateei intsuldatzea (8/2007 LO, 2.e art.)	%	Funtzionamendu, antolamendu eta jardueraren arrunteko gastuak	%	Emaitza	Gastu finantz.	Ekitaldiko emaitza
Navarra Suma talde parlamentarioa	934.716	792.000	85	135.050	14	7.666		7.666
Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioa	599.508	599.000	100	258	0	250		250
Geroa Bai talde parlamentarioa	485.304	485.366	100		0	62		62
EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioa	422.160	421.161	100		0	999	921	78
Podemos-Ahal Dugu Nafarroa foru parlamentarien elkarte	213.240	209.052	98	2.284	1	1.904		1.904
Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoa	181.668	176.400	97	1.058	1	4.210		4.210
<b>Guztira</b>	<b>2.836.596</b>	<b>2.682.979</b>	<b>95</b>	<b>138.650</b>	<b>5</b>	<b>15.091</b>	<b>921</b>	<b>14.170</b>

Halaber, honako aurrekontu-partida hauen betetzea aztertu dugu, bai eta aurreko ekitaldiarekin alderatuta izandako bilakaera ere:

Kontzeptua	ABG, 2021	ABG, 2022	Aldea (%) 2022/2021
Beste hitzarmen batzuk	32.485	42.528	31
Garapen- eta elkartasun-jardueretarako dirulaguntza	67.004	94.396	41

Honako espediente hauek aztertu ditugu:

Kontzeptua	Emandako zenbatekoa	Aurreratu-tako zenbatekoa	Justifikatu-tako gastua	Justifikatu gabeko gastua	Amaierako likidazioaren zenbatekoa/Itzul-keta
Hitzarmena NUPekin. Nafarroaren Konstituzio historikoari buruzko jardunaldia	5.500		4.225	-	4.225
Hitzarmena NUPekin 2021-2030 aldirako Pobreziaren eta Desberdinkeria-aren aurkako Nafarroako Ituna <sup>3</sup>	14.960	7.480		-	-
Hitzarmena Euskaltzaindiarekin Euskarazko testuen erakusketa	5.000		5.000		5.000
Garapenerako hezkuntza-proiektuak egiteko dirulaguntzak	11.000	-		-	11.000

Egiaztatu da ezen, orokorrean, berrikusitako gastuak zuzen baimendu, fiskalizatu, justifikatu eta kontabilizatu direla eta diru-laguntzak haiei buruzko arauetan ezarritakoaren arabera eman, justifikatu eta ordaindu direla.

#### 4.2.5. Kontratazioa

Honako kontratu hauen adjudikatze-prozedura eta betetzea berrikusi ditugu:

Kontrata	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Lizitatuak kopurua	Adjudikazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)
Ikus-entzunezko zerbitzuen kontratazioa	Irekia, Europako atalasetik gora	84.800	2	75.000
Ikus-entzunezko informazio zerbitzuen kontratazioa	Negoziatua, lizitazio deialdirik gabe	-	1	48.400
ÁGORA G-ONCEekin integratzeko kontratua	Negoziatua, lizitazio deialdirik gabe	-	1	225.922
Kontrata	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Eskaintza kopurua	Fakturatutako zenbatekoa (BEZik gabe)
<i>La LORAFNA 40 años después</i> liburuaren edizioa	Munta txikiko kontratua	-	0	10.108
Parlamentuko langileen ordutegiaren eta bertarantzaren kontrolerako aplikazio informatikoa gaurkotzea	Munta txikiko kontratua	-	0	5.006
Webgunearen, Intranetaren eta Parlamentu Irekiaren mantentze-lanak eta euskarria	Munta txikiko kontratua	-	0	6.057

Oro har, aipatu kontratuen espedienteak Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen (aurrerantzean, KPFL) eta Parlamentuaren Erregelamendu Ekonomiko-finantzarioaren arabera izapidetu dira. Haietatik datozen gastuak onetsita, fiskalizatuta, justifikatuta eta zuzen

<sup>3</sup>Behin betikoz likidatu gabe

kontabilizatuta daude, eta araudian ezarritako epeetan ordaindu dira. Halere, honako hau aipatu behar dugu:

- Pleguetan ez da exekuzio baldintza berezirik ezarri. Espedienteetan ez daude jasota hura justifikatzen duten arrazoiak.

- Lizitazio deialdirik gabeko prozedura negoziatu bidez izapidetutako kontratuetan ez dago jasota, kontratua formalizatu aurretik, adjudikazioduna kontratatzeke debekuaren egoeran ez dago-elako egiaztapena. Zehazki, ez dago jasota tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izateari buruzko ziurtagiria. Horrenbestez, “Gomendioen jarraipena” izeneko atalean jasotako gomendioak indarrean egoten jarraitzen du.

Munta txikiko kontratuetarako araubide orokorrari dagokionez, nabarmentzen dugu, Parlatuentaren Erregelamendu Ekonomiko-finantzarioaren eta KPFLaren arabera, prozedura hori soilik dela egokia zerbitzuen edo segidako zerbitzu-emateen balio kalkulatuak legez ezarritako muga gainditzen ez duenean.

Horrekin lotuta, aurreko ekitaldiari buruz egin genuen txostenak kafetegi zerbitzua eta argazki zerbitzua lizitzatzeko gomendioa jasotzen zuen. Gomendio horri dagokionez, hauxe esan behar dugu:

- Argazki zerbitzua 2022an lizitzatu zen eta eman gabe geratu zen. Geroago, 2023an esleitu da prozedura ireki baten bidez.
- Kafetegi zerbitzua ez da lizitzatu eta gomendioak indarrean egoten jarraitzen du.

Webgunearen mantentze-lanetarako eta euskarria emateko kontratuaren berrikuspena dela-eta esan behar dugu zerbitzu horren balio kalkulatuak, hurrengo 48 hilabeteetarako aurreikusitako gastua aintzat hartuta, KPFLaren arabera munta txikiko kontratuaren araubide berezia erabiltzea ahalbidetzen duen muga gainditzen duela. Horrenbestez, “Gomendioen jarraipena” izeneko atalean jasotako gomendioak indarrean egoten jarraitzen du.

Txosten honetako “Gomendioen jarraipena” izeneko atalean gai horri buruz adierazitakoaz gain, gomendatzen dugu espedienteetan jasotzea kontratuaren exekuzio baldintza bereziak ez ezartzearen arrazoiak.


#### 4.2.6. Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak

Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak, hurrenez hurren, 14,14 eta 0,78 milioi eurokoak izan dira, diru-sarrera guztien ehuneko 99, eta horien betetze-maila ehuneko 100ekoa izan da.

Kontzeptua	AEG 2021	AEG 2022	Aldea (%) 2022/2021
Transferentzia arruntak	13.747.220	14.135.197	3
Kapital-transferentziak	816.205	776.205	-5

Horri dagokionez, egiaztatu dugu aurrekontu-informazioa bat datorrela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak lortutakoarekin.

**ERANSKINA. NAFARROAKO PARLAMENTUAREN ORGANIGRAMA**



## **18/23 Ebazpena, ekainaren 8koa, Nafarroako Arartekorena, zeinaren bidez María Antonia Echeverría Beloqui andrea Nafarroako Parlamentuko funtzionario izendatzen baita, Nafarroako Arartekoaren bulegoan destinoa duena, administrari lanpostua betetzeko (C maila).**

2022ko abenduaren 12ko 40/22 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Arartekoak, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak esku utzita, onartu zuen Nafarroako Arartekoaren bulegoari atxikitako administrari plaza bat (C maila) merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko sistemaren bidez betetzeko deialdia, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko egonkortze-prozesuen esparruan. Deialdi hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2022ko abenduaren 27an, 259. zenbakian, eta Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean, 2022ko abenduaren 27an, 150. zenbakian.

Merezimendu-lehiaketa amaituta, Nafarroako Arartekoak, apirilaren 20ko 12/23 Ebazpenaren bidez, epaimahai kalifikatzaileak egindako proposamena onetsi zuen, María Antonia Echeverría Beloqui andrea, puntuaziorik handiena lortu zuen izangaia, izendatzeko. Proposamena 2023ko apirilaren 28ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (89. zk.) eta 2023ko maiatzaren 4ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean (60. zk.) argitaratu zen.

Ikusi da kudeaketa-teknikariaren txostena, interesdunak deialdiaren 7.2 oinarrian adierazitako dokumentazioa garaiz eta behar bezala aurkeztu izanari buruzkoa. Horrenbestez, bidezkoa da pertsona hori izendatzea, deialdiaren 8. oinarrian ezarritakoarekin bat etorritz.

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearekin, erakunde horren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Erregelamendurekin eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2022ko urriaren 10eko Erabakiarekin bat etorritz, honako hau

**EBAZTEN DUT:**

**Lehena.**- María Antonia Echeverría Beloqui andrea Nafarroako Parlamentuko funtzionario izendatzea, Nafarroako Arartekoaren bulegoan destinoa duena, Administrazioen Kidegoko administrari (C maila) gisa.

**Bigarrena.**- Xedatzea interesdunak hilabeteko epea izango duela, izendapenaren jakinarazpenetik aurrera, Nafarroako Arartekoaren aurrean lanpostuaz jabetzeko.

**Hirugarrena.**- Ebazpen honen berri ematea Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, 2022ko urriaren 10eko Akordioan aurreikusitakoarekin bat, interesdunari jakinaraztea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Arartekoaren instituzioaren web orrian argitaratzeko agintzea.

Iruña, 2023ko ekainaren 8a

Nafarroako Arartekoa: Patxi Vera Donazar